

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko irailak 19

Usurbil, 26. Zenbakia



**Gero eta piper
uzta txarragoak**

EZKONTZAK

Josune Zuloaga (Usurbil)
eta

Jaime Elgarresta (Aia)
(1997-07-24)

Jose Mari Furundarena (Usurbil)
eta

M^o Teresa Fernandez (Donostia)
(1997-07-25)

M^o del Coro Muñoz(Usurbil)
eta

Jose Luis Tato (Hernani)
(1997-07-26)

Begoña Zubizarreta (Usurbil)
eta

Mikel Iurretagoiena (Aia)
(1997-08-01)

Josu Orbegozo (Usurbil)
eta

Itziar Blanco (Donostia)
(1997-08-02)

Rosa Mari Gutierrez (Usurbil)
eta

Juan Jose Pascual (Tolosa)
(1997-08-23)

Maria Canseco (Usurbil)
eta

Felipe Carlos Juanes (Irun)
(1997-09-06)

M^o Soledad Parra (Usurbil)
eta

Ignacio Correyero (Hondarribia)
(1997-09-06)

JAIOTZAK

Maria Otaegi Zabaleta
(1997-07-22)
(Galtzaragaina)

Ane Ibargoien Alvarez
(1997-07-23)
(Luarri etxea)

Julen Agirre Plaza
(1997-07-30)
(San Esteban auzoa)

Julen Urdangarin Larrañaga
(1997-08-07)
(Ugaldea industrialdea)

Sara Gutierrez Arias
(1997-08-11)
(Puntapax kalea)

Eukene Uli Unsain
(1997-08-12)
(San Esteban kalea)

Aitziber Sanchez Lizarazu
(1997-08-22)
(Kale Nagusia)

Alexander Izagirre Rivas
(1997-08-22)
(Kalezar)

HILDAKOAK



1997-08-08
Jose Sarasola Imaz
51 urte.
San Esteban kalea



1997-08-09
Jose Ramon Unanue
51 urte.
Errekatxiki kalea



1997-09-08
Inaxi Iraola Usategi
68 urte.
Toki Alai etxea



1997-09-13
Pello Muguruza
59 urte.
Atxegalde

1997-08-20
Trinidad Begiristain
Maioz
91 urte.
Kalezar

1997-08-24
Venancia
Bengoetxea Esnal
91 urte.
Kalezar

1997-08-24
Isidra Telleria Zudupe
88 urte.
Zubieta

1997-09-13
Bittori Alzugarai
Irisarri
85 urte.
Kalezar



Pello Muguruza Zubizarreta

(Noaua! Kultur Elkarteko 125. zenbakidun bazkidea)
Irailaren 13an hil zen



Noaua! Kultur Elkartek
bere dolumina bidaltzen
dio Pelloren sendiari

Zer irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.
e-mail:
Noaua.mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.
Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Nere Amenabar, Ines
Kamino, Leire Atxega, Iñaki
Labaka, Iratxe Begiristain,
Begoña Zubiria, Amagoia
Mujika, Xabier Arregi, Pako
Agudo, Alfonso Vidal, Nieves
Aranburu, Luis Aranalde eta
Zalao Arnaiz **Administrazioa:**
Arantxa Usarralde, Aitor
Pikabea eta Nerea Kamino.
Erredakzio Kontseilua: Olatz
Altuna, Garikoitz Udabe, Jose
Jabier Furundarena, Iñigo
Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa: Susana

Martin. **Argazkia:** Joxe Antonio
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-
so. **Banakeia:** Mertxe Jimenez,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.
Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola,
Tirada: 2.200 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak
ez du bere gain hartzen aldiz-
karian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik.

**PORTADA: Aginagako
erriberan zenbait gazte
piperrak biltzen.**



Azkena egunen zain

Unai Zubiaur

Ikaslea

Badatorkigu berri ere
Noaua! Nolahalako opo-
rraldaren ondoren gure eskueta-
ra iritsi zaigu berriro ere, ohi
baino gehiago kostata agian
eta seguruenik alferxeago ere
bai. Baina ziur nago inoiz baina
kontu gehiagorekin datozkigula
noauatarrak ere, ez dakit nongo
haize freskoaz kutsatu eta era-
berriturik. Bahamak, Menorca,
Herribehera nahiz Asteasu,
guziak ere ez daude gaizki.
Aukera norberak, baina hori bai,
haize frexkoa leku guztietan ez
eta...

Gazteon aukera? Ahal bada
kanpora. Eta egia esan, buruak,
gorputzak edo ez dakit zerk
eskertzen du eskenatoki aldake-
ta. Paisaia, pertsonaiak, ohitu-
rak... Dena aldatzen da. Egune-
roko bizimodu eroso bapatean
desagertu eta ur epelik gabeko
dutxa bat edo paperik gabeko
komun bat bisitatu artean ez
gara konturatzen zein huskerik
bistara dezakeen hain preziatu-
tzat dugun bizimodu moderno
honen ahulezia. (Adibide xume
bat jartzearen.) Nik aukeran,
bidaiatzeak sortzen duen emo-
zio eta bizi poza, dutxa hotza
eta "klinex" truk baldin bada
ere.

Horrelako egunetan nahiko
zaila izaten da datorrenari uko
egin eta oporretako txipa eta
txispa mantentzea. Tristeago eta
malaletxean egoten gara, bai-

na normalean, datorkigun
aldaketarako egokitze prozesua
besterik ez da. Eutsi goiarri!

Dena den, loaren nahaste, su-
minkortasun, astenia, gogo eza,
agresibitate, herstura eta depre-
sio arina bezalako sintomak ba-
dituzu, Opor Amaierako Sindro-
me Traumatikoa izango duzu.
Edo... agian ez. Agian Lady
Dyren heriotzak gehiegi hunkitu
zaitu eta horregatik zaude
horrela. Hau larriagoa da.

Sasijankoen oihartzun amai-
gabean irentsi ditu jendearen
bihotzetan gorderik dirauten
grina ilunenak, telebista, prentsa
eta aldizkarietan mozarrotu den
diruaren mamu beltzak. Baina
askotan horrelakoak ikusi behar
izaten ditugu, kanpora atera
nahi ez ditugun ezin eta nahiga-
beak ateratzeko.

Errazagoa izaten da, bide
okerretik goazela sumatu arren,
bizitzak daraman abiada, estres
eta gizarteari (komunikabide,
botere...) errua botatzea, espe-
rantzaren itxaroan, zain.
Momentu aproposa izan daite-
ke honakoa, bira erdia eman
eta egindako bideari so egite-
ko, ispiluaren aurrean jarri eta
kareta kenduz.

Gutxi geratu arren, ahal due-
nak disfruta ditzala opor haue-
tako azken egunak.

Gero arte!



Usurbilgo Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria

353

usurbildar bazkide ditu
Noaua!-k
Zu ere egin zaitez bazkide!



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

HURA KAFEAREN GOZOA!

Santixabel bezperan arratsalde, frontoi aldean ibili nintzen, kuxkuxean, bertako obraren azken ikuruei erreparoen; halatan, emakumezko bikote bat azaldu zen: Juanita Izagirre eta Juliana Zumeta, hain zuzen ere.

Berehalaxe jo zuten nire begiek beraiengana: bai alajainetan!; izan ere, amona Julianaren gartsutasunak benetan txundituta jarri ninduen. Honen esamesak eta imintzioak bazuten gatz-piperrik. Arkitektoarena egiten ari zen. Berak zirudien frontoiko proiektuaren ideatzaile eta zuzendari. Kaska, kaska!, ematen zion lurrari makilarekin esaten zuen guztia indartu asmoz. Hura zen hura pulamendua!

Halako batean hurbildu ere hurbildu zen bikote hori niregana, eta honetara galdetu zidan "amona" Julianak:

-Oye, ¿ese toldo es nuevo?, bai noski ezta?

-Aizu, "oye ese toldo es nuevo" honekin ez dut ezertxo ere ulertzen.

-Xabier, berria al da?

-Ez da berria:lehengo zaharra pintatuta baizik.

-Ikusten, ikusten-gaineratu zuen bere lagunkide Juanitak- nik esanda bezala azkenean: lehengo zaharra pintatuta. Esaten diot ezer jakin gabe askotan hitz egiten duela. Beti horrela ibiltzea ere!

Berriketaldi horretan kostatu zitzaidan amona hau zentzarazten. Arraioa alaena! Hura zen hura euskañolean aritu beharra! Alegia: cincuenta por ciento euskaraz, eta beste cincuenta por ciento kastellanoz, berak esango lukeen tamainan. Oraindik horrelakorik! Horrelako hizketa xeblere eta zailagorik! Hizjario ederra du, baina guztia gisa horrelakoa.

Gerora afari garaia nuela aipatu nienean, elkarrekin kafetxoa hartzera gonbidatu ninduten, eta halaxe egin ere egin nuen: beraien esanetara eta erregue-tara makurtu.

Egun, hala ere, ez naiz batere haserre gonbidapen hura onartzearekin; ez horixe. Izan ohi da

gau atsegirik, baina hura bezalakorik! Gozo-gozo aritu ginen munduko gorabeheretan: munduko arazoak jorratzen; besteak beste: euskara batua, zahar egoitzak, gazteak, eta biolentziari buruz tratatzen.

Ez da edozein bikote hori. Jakinminetan etabarren kezak bizi dira. Guztia dute aztergai: ez da gutxi halako adinakoentzat. Ez horixe. Segi aurrera!

Eta nik, geroztik, makina bider esan diot neure golkoari: hura kafearen gozoa!

Xabier Pikabea

OHARRA: Atal honetara eskutitzen bat bidali ezker, zure izen abizenak agertzea beharrezkoa da. Nahiz eta argitaratzean ezizenez sinatu, norke idatzi duen eskutitz hori jakitea ezinbestekoa zaigu. Datu hauek isilpean gordeko dira hala nahi bada. Adierazpen askatasunarengandik kasu egingo diguzuelakoan...

Txirikitutik



Abuztuaren 8an 30 bat usurbildarrek Donostia-Zumaia bitarteko bidea mende honen hasierako trenean egiteko aukera izan zuten. Berez Usurbilen ez zuen geldialdirik tren berezi honek, baina talde ugaria zela eta lortu zuten antzinako tren hau Usurbilen gelditzea.

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)



TABERNA

Usurbilgo txilborrean
herritarron topaleku



Irazu kalea, 9
Tlf: 36 02 17

N • U

Ileapaindegia

MISTOA

Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2 - 2 1.A
Telefona: 36 19 51



IZASKUN EGILETA ARRIBILLAGA

34 urte ditu eta Geografia eta Historian lizentziatua da. Gaur egun Bergarako liburutegian lan egiten du eta datorren urrirako bere lehen haurra espero du.



Egin zenituen ikasketak egitea nahi al zenuen?

Bai, betidanik gustatu zait asko historia. Donostiako EUTGn ikasi nuen. Noski, gai batzuk beste batzuk baino gehiago gustatu zitzaizkidan, baina hala ere, urtetik urtera atera nuen karrera. Duela 11 urte amaitu nuen.

Nola gogoratzen dituzu unibertsitateko urte haiek?

Ez zegoen unibertsitateko giro haundirik, ikastekoa soilik. Mojetan egotea bezalakoa zen, irakasle batzuek zerrenda pasatzen zuten. Filmetako giroa behintzat ez zen inoiz egon.

Eta gogoratzen al duzu zure graduazioa?

Bai, baina hori baino lehen, karrera amaitu eta gero, selektibitatearen antzeko beste azterketa batzuk egin behar izan nituen Bilbon titulua konbalidatzeko, ikastetxe pribatua baitzen gurea. Azterketa hori gainditu eta gero ematen zizuten titulua.

Eta oso "pelikuleroa" izan al zen?

Beno, toga eta ribetea jarri nituen. Gero zure izena eman eta titulua eman ordez honen erresguardo bat ematen zizuten. Bilbora joan behar zen gero titulu ofiziala hartzera. Eta nik oraindik ez dut hartu. Ez dut behar izan eta!

Eta zer egin zenuen ondoren?

Euskararekin lanean hasi nintzen. Ikasketa guztiak gazteleraz nituen, ez nengoen alfabetatua. Beraz, Lazkaoko euskaltegian ikasten hasi nintzen eta bertan atera nuen EGA titulua. Gero Etumeta euskaltegian irakasle izan nintzen bi urtez. Irakasle izateko kurtsiloetan ere jardun nuen.

Eta nola amaitu duzu liburutegi batean?

Beti gustatu izan zait liburutegien mundua, irakaskuntza baino gehiago. Lagun bat nuen mundu horretaz bazekiena eta haren bitartez eta ikastaro batzuen bidez, oposaketak prestatzen hasi eta azkenean Bergarako liburutegian amaitu nuen. Jadanik ia zazpi urte daramatzat bertan haur liburutegian. Eta beti leporaino egoten da.

Hainbeste irakurtzen al da Bergaran?


Ez da horregatik; ikasle asko liburutegira ez da joaten irakurtzera, eskolako lanak edo lanak egitera baizik. Liburutegiak ikasgelak gisa erabiltzen dira, eta horrela ezin da funtzionatu. Hori ez da gure funtzioa, baina leku guztietan ari da gertatzen.

Laister ama izango zara. Urduri al zaude?

Zortzigarren hilabetean sartuko naiz laister. Berez ez nago urduri, baina jende guztiak esaten dit hemendik aurrera esklabizatuta egongo naizela. Horrelakoek jartzen naute urduri. Gainera, duela gutxi jakin dugu neska dela. Nik neska nahi nuen, beharbada nire iloba ere neska delako eta "horrelako bat" nahi dudalako. Izena, berriz, senarrak aukeratuko du.

Eta ondo al daramazu Martin Alustizaren emaztea izatea?

Paparazziek ez naute jarraitzen behintzat! Hemen inguruan jendea Martin ikusteaz ohituta dago; gehienez begirada batzuk eta "hori Alustiza dek" entzuten duzu. Baina Errioxa eta Sorian izugarria da, kaletik ere ezin duzu joan, sinadurak eskatzen dizkiote etab. Suposatzen dut hemengo jendea ez dela hain "beroa".



ELDUAIEN

HIZKUNTZA ESKOLA

Pablo Mutiozabal, 2- 1.
LASARTE-ORIA

Tel. 37 27 81

INGELESA: 1997-98 ikasturteko eskaintza

Kanpaina berezia: 4-7 urte bitarteko haurrentzat 0 maila

Egungo irakaskuntza sistemetan dauden irakasbiderik aurreratuenak

Jokuak, bideoa, antzerkia, abestiak, fitxak, laminak...

Irakasleria kualifikatua eta esperientzia zabalekoa

Astean bi ordu: 5.800 pezeta hilero

TXOKOALDE



Iñaki
Labaka

Txokoalde goitik behera aldatzeko ahalegine-tan

Oporrak bukatu zaizkigu eta hemen gatoz berri ere auzoko berriak emateko asmoarekin. Guk oporrak egin ditugu, bai, baina auzoa konpontzen dihardutenek ez dute atsedenik eduki eta pixka baterako lana badaukatela iruditzen zait. Hemendik alde egiterako hurrengo udara ere iritsiko zaie langile hauei.

Orain, **Goikoerrot**a aldeko bi **zubiak konpondu** ondoren, gaztetxe aurreko zubia konpontzeari ekin diote. A ze zuloa egin duten! Goitik behera zetorren **ura desbideratu** eta auzoko kaskoan erreka urik gabe doa. Lehen komuneko desaguetan puskatu zituztenez usaina izango genuela uste genuen, baina oraingo ez da jendea kexatu.

Bestalde, zubiarekin batera **Saltxipi aurreko aparkalekua zulatuko dute**, azpitik doan erreka agerian uzteko. Horregatik, aparkaleku berria eraikitzen ari dira frontoi aldean dagoen terrenoari lurra kenduz.

Esan bezala, oporrak Urdaigako bidea itxita zego-



ela hasi bagenituen, buelta-koan egoera berean jarraitzen dugu. Hortik pasa nahi duenak Saltxipitik gora joan beharko du.

ZUBIETA



Xabier
Arregi

Zubietan Euskal Festa dugu irailaren 21ean

Irailaren hirugarren igandean, hilaren 21ean, bigarren urtez jarraian **Euskal festa** ospatuko da **Zubietan**. Egun guztian zehar ekitaldi ugari izango ditugu Zubietako plazan.

Hasteko "**Endika Abril oroitzapena**" txapelketako errebote partiduak jokatu dira plazan. Goizeko 9.30etan hasita Kanbo eta Baigorriko taldeak arituko dira elkarren aurka. Ondoren, Zubieta 1 taldeak Baiona 1 taldea izango du aurrez-aurre.

Partiduak amaitu ostean animalien txanda. **Ganadu erakusketaz** gozatzeko aukera paregabea. Erakusketaz gain lehiaketa ere egingo da, ganadu onena hautatu asmoz. Horrez gain, bolo eta toka sariketak eta eskulangintza erakusketa izango dira ikusgai.

Eguerdian, jatenaren ordua. Tripa zorriak ahazteko herribazkaria plazan. Bazkalostean Zubietako "**Kimu Berri**" taldeak "**Amets gaiztoa**" izeneko lana antzeztuko du. Arratsaldean zehar, dantzariak sueltoan, dema eta afaria irabazi nahi duemarentzat trikitalariekin erromeria ere izango da lehen garai batean egiten zen moduan. Guztia Herri-Batzarrak, Euskal Festen Batzordeak eta Zubieta Pilota Elkarteak antolatuta.

AGINAGA



Iratxe
Begiristain

Segurtasun falta Aginagako eskola txikian

Guraso elkarte eta maisuak bat datoz honetan: **Aginagako eskola txikiaren egoera** ez da egokiena. Arazoren bat dagoenean herriko langileak etortzen dira konpontzera baina bat konpondu ahala beste arazo bat sortzen omen da.

Joan den hilaren 13an euria egin ostean **ifoginak** topatu zituzten, astelehenean, eskolara joandakoan. Ez hori bakarrik, argazkian ikus daitekeenez sabaiaren zati bat erori egin zen eta leku horretan tripa ageri da. Guzti honek eta ikastetxearen **hezetasun haundiak** Aginagako eskola txikian dabilzan haurren segurtasuna kolokan jartzen dute. Eskola erabat konpontzea edo beste leku bat egokitzea izan daiteke irtenbidea.



SANTUENEA



Pako Agudo

Festa giroa nagusi Santuenean

Santueneako jaiek ere berea egin dute. Irailaren 12, 13 eta 14an jai giro politoan ospatu dira gure auzoko festak. Inguruko herrietan festak izan arren, Añorga txikin kasu, **umore ona nahiz juerga** itzelak ez dira falta izan aurtengo jaietan.

Egia esan kanpoko jende gutxi azaldu da Santuenea aldera. Sanestebanen itzalean gaudela esan daiteke, baina santuenetarrontzat



festa paregabea bilakatzen da iraileko bigarren asteburua. Azken urteetan, ez dugu hutsegin, eta **aurrerantzean ere festak** izango ditugula espero dugu, kanpotarrekin nahiz gabe. Izan ere guk oso ondo pasatzen dugu "santurik gabeko jai hauetan"

Ah, ia ahaztu zitzaidan. **Pulsera bat galdu** zaizu Santuenean? Lasai, ez nigarririk egin, badugu pulsera horren berririk. Usurbilgo udalera joan eta daltzainei eska diezaiokezu.

KALEBERRI



Ines Kamino

Ikastaro berriarekin batera ikasketa moeta ezberdinak

Ikasketei ekiteko garaia iritsi da. Balkoian nagoenean Udarregi ikastola nahiz Agerialdeko haurrak oinez edo autobusez beren "lantokieta-ra" joaten ikusten ditut ia egunero. Lanbide heziketakoak, oraindik lasai dabilta. Udaletxeko nire "korresponsalak" esan didanez, aurtien **ileapaindegi ikastaroa** antolatu dute, gaur egun ikasten ari ez diren edo langabezian dauden 16 eta 19 urte bitarteko gazteentzat. Niri konpetentzia egin nahi didaten horiei irailaren 22an amaitzen zaie izena emateko epea.

Bestalde, Etxealdiako korresponsalak ekarri didana ere aipatu beharko dut. Izan ere **klaseak emateko tailer bat** ireki behar dute lehen autoeskola zegoen tokian. Artetsu, txapuzero, etxeakoandre... guztientzat zuzendutako klaseak. Zur tailagintzaren hasiera, marrazkia eta pintura, errestaurazioa eta esku lanak landuko dira. Informazioa lortzeko **Pelex edo Susanari** dei diezaikezue (364783).



Eguzkitzalderantz joz, espaloien berritzea da aipagai. Eskaiilerak kendu eta argazkian ageri den bezala, ezindu fisikoak pasatzeko pasabideak jarri dituzte udara honetan.

KALEZAR



Begoña Zubiria

Futbola baina zerbait gehiago Haranen

Futbol denboraldia hastear dagoenean Harane futbol zelaira igotzen den edonork aldaketak somatuko ditu bertan.

Alde batetik **argi zutabeak mugitu** egin dituzte. Lehen zelaiaren lau izkinetan kokatuta bazeuden, orain barneruntz ekarri dituzte, hau da, alboetan jarri. Usurbil Futbol Taldeko kideen esanetan, "aldaketa mesedegarria izan arren oraindik badago zer eginga. Izan ere, argi fokoei norabide egokia emateaz gain, hauek konpondu behar dituzte ia erdiek ez baitute argirik ematen".

Argi kontuak alde batera utzita, zelaia estutu dutela aipatu behar da. Albo batean, Saizar sagardotegiaren azpian, **areto futbolerako zelaia** egin behar dute. Honenbestez, honek beharrezko zabalera izan dezan futbol zelaiari metro eskas jan diote.

Futbol kontuak alde batera utziz, **Hospital txikiko negartokia** erabat eraberritu digute udara honetan. Uztaila nahiz abuztuan hor ibili dira 22 gazte jo eta su humiladeroa txukundu nahian. Eta baita lortu ere!. Bertatik pasatzerakoan guztiz aldatuta aurkituko duzu Hospital txiki, txukuntasunean eta edertasunean asko irabazi baitu.

H erorrek esan

Inkesta Kontxako banderaren bigarren estropada ospatu baino lehenago egindakoa da.



German Errekondo

Kaleberri

San Juanek. Eta Oriori zazpi segunduko aldea aterako dio. Beti Oriokoa izan naiz, baina aurten aldatu egin dut.



Jose Antonio Larburu "Xoberano"

Aginaga

Nire ustez Donibaneko arraunlariek irabaziko dute eta gutxienez hiru segundu kenduko dizkiete ijitoei.



Iker Muguruza

Eguzkitza

Igandean lehenengo postuan San Pedro geldituko da. Bigarren Donibaneko, eta honek Oriori lau segundu kenduko dizkio. Horrela, Oriok ez du irabaziko Kontxako banderarik aurten. Hori da nire pronostikoa.



Xanti Zumeta

Bizkarra

Oriok irabaziko du bandera. Bestetik, uste dut Tiranek ere lan handia egingo duela oraingo estropadan, izan ere, aurreko igandean itsaso txarra izan zuten.



Mikel Errekondo

Kaleberri

Orión aldekoa naiz, auzokideak gara eta. Nire ustez lau edo bost segundu aterako dizkio San Juani. Aurtengoan kale egin duena San Pedro izan da. Apostuak egiten dituzte soziedadean eta denetik izan ohi da.



Migel Muguruza

Txokoalde

San Juanek irabaziko du. Oriori lau bat segundu aterako dizkio. Oriokoak indartsu daude aurten, baina Sanjuandarrak ere bere amen semeak dira, eh! San Pedrokoa izan naiz beti, baina aurten San Juanen alde nago.



Pedro Maioz
Kaleberri

Orión alde nago. Baina hala ere, itsasoren arabera egongo da dena; itsaso pixka bat baldin badago, kontuz San Juanekin. Bestela Oriori ez diote kenduko bandera.



Jorge Aizpurua

Kaleberri

Oriok. Hori esan behar ko dut behintzat, handik ibiltzen naiz eta egunero! Bestela harrika egingeko kapaz dira. Baina argi San Juanekin, horiek ere "ijito" xamarrak dira eta.

USURBIL
OPTIKA



Udazkeneko eskaintza tentagarria!!
Eguzkitako betaurrekoak %10 eta %20eko deskontuarekin
Lentilen likidoa %17ko deskontuarekin

Irazu kalea, 9-11. Usurbil
Tlf. eta Faxa: 37 02 69 (Gipuzkoa)

Dirulaguntzak herriko talde eta ekintzentzat

Udalak herriko hainbat talde eta ekintzei honako **dirulaguntza** hauek ematea erabaki du. **Zumarte Musika Eskolari** urtero ematen zaion subentzioaren hirugarren zatia ematea onartu da, hau da, 225.000 pezeta.

Bestetik, **frontoi atzeko muralaren** gastua onartzea ere erabaki du Udalak. Frontoiko ezker paretean eraiki diren hormatxoak Bustinzulo Keramika taldeak prestatutako plakekin estali dira, baina horma horien neurriak aldatu egin direnez (Iberdrolaren kutxatila bat libratzeko), keramikazko pieza gehiago egin behar izan dira lanak diseinu berrira egokitzeko. Bestalde, ekainaren 1eko uholdeak zenbait pieza puskatu zituenez, berriak egin edo berritu egin behar izan dira. Ondorioz, Udalak Bustinzulo Keramika taldeari 300.000 pezeta gehiago ematea erabaki du. Azkenik, parroko gazte taldeari 150.000 pezetako subentzioa ematea onartu da **Kabalgata antolatzeko**.



Euskal Fondoarentzat dirulaguntza

1990. urtea ezkerotik **Euskal Fondoak eramerikako** hainbat **herrialdeetan garapen osoarako finantziaketaren** alde ari da lanean. Hori dela eta, **El Rama** udalerria aukeratu du jarduera guneetako bat bezala.

Proiektu honen helburua bertako nekazalgora udalerrri osoaren garapen prozesuan murgiltzen saiatzea da, ekar diezaien hazkunde ekonomikoa eta ezagutzak beren bizi-baldintzak hobetuko dituelakoan.

Aurreko faseetan ere Usurbilgo Udalak ekintza honetan parte hartu du, eta aurten ere horrela egitea erabaki du. Hori dela eta, **Udalak Euskal Fondoari 600.000 pezetako** diru laguntza ematea erabaki du, El Rama herriko nekazaritza eta abere- hazkunderako garapen programa aurrera eramateko.

Denbora luzean langabezian daudenentzako ikastaroa

Udaleko Hezkuntza eta Enplegu Sustapen batzordeak proposatuta, Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi eta Lan Sailak bultzatzen duen **"herriko eremuan Enplegu eta Prestakuntzarako ikastaro-egitaraua"** Usurbilen egitea onartu da, **langabezian denbora luzean** aurkitzen direnei zuzenduta.

Egitarau honen bidez, **hamar langabetu** prestatuko dira **igeltseritza lanbidean**, eta ondoren **zortzi kontratatuko** dira herriko zenbait lan aurrera ateratzeko.

Egin beharreko lan horiek honako hauek izango dira: Kalezarko eskailerak berritzea eta Aginagako eliza zaharrean konponketak egitea.

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL

Telesforo Ardoak



Zure mahairako egokienak

Kale Nagusia, 25
Telf. 36 12 20

Gatza, piperra... eta ozpina urez bustita

Piperraren uzta aurrera doa Usurbilen. Udara amaitu den arren piper Jarioak ez du etenik. Eta honekin batera bere inguruan sortzen den informazio jarioa ere etengabea da. Urtero-urtero, uztailaren hasieratik urrira bitartean piper kilo ugari biltzen da Usurbilgo sailetan. Aurtengo uzta, ordea, ez doa nahi bezain ongi. Ekainaren hasieran izandako uholdeak eta udaran egin duen eguraldi txarra izan dira Usurbilgo pipergileen oztopo nagusiak.

Ekainaren 1ean izandako uholdeen eragina nabarmena izan da aurtengo piperraren uztan. Maiatzean piperra landatu ondoren, ekainean ur azpian gelditu ziren hainbat pipergileen sailak eta honek landareengan kalte handia eragin zuen. Normalean metro bateko altuera izaten badute ere aurten landare gehienak erdia ere ez dira hazi. Hau izan da orain arteko uzta txarraren arrazoi nagusia, izan ere, landare txikiagoak izanik ematen duten piper kopurua txikiagoa da. Hasieratik gaizki hasten dena gero ondo ezin bukatu.

Piperrak beroa behar du

Hala ere ez da hori orain arteko uzta txarraren errudun bakarra. Piperrak beroa behar du. Piper-landareak bere ohizko tamainura iristen denean eguzkia edo hego haizea eskatzen du. Orain arteko eguraldia, ordea, ez da pipergileen gustokoa izan. *"Bero haundiak gutxi egin ditu, eta eguzki egunak ere ez dira asko izan. Euria, aldiz, nahi baino egun gehiagotan izan dugu gure artean"*.

Joxe Pagola piper ekoizlearen ustez urtez-urte gero eta



uzta txarragoak izaten dira. *"Azken hamar urteetan bildutako piper kopurua asko gutxitu da. Lehen piper ugari izaten genuen, erruz, orain berriz urtetik-urtera gero eta gutxiago. Orain dela lau urteko uzta-ekin alderatuta laurdena bildu da aurten, iazkoarekin alderatuta berriz, erdia"*. Hala ere itxaron egin behar da. Uzta ez da oraindik amaitu, uztailaren hasieratik urriaren bukaera arte ematen baitu piperra. Urte batzutan aben-

Lehen piper ugari izaten zen, erruz, orain berriz, urtetik urtera gutxiago

duan ere piper biltzen jardun izan dira. Eguraldiaren esku dago guztia. Beroa egiten badu piper ugari izango da, bestela...

Eta piperbiltzaileak, zer?

Aurrez aipatutako bi faktore horiez gain piperbiltzaileen lana dago tartean. Hauek 15

Usurbil, Lasarte, Andoain, Orio, Zarautz eta Donostia aldeko gazteak etortzen dira Usurbilgo sailetara piperra biltzera. Jasotako kilo bakoitzaren truke 120-125 pezeta jasotzen dituzte.

eta 21 urte bitarteko gazteak izan ohi dira, %80 mutilak,

nahiz eta tartean zaharragoen bat ere aritu. Usurbildar gazteez gain, Andoain, Lasarte, Orio, Donostia eta Zarautzarrak ere etortzen dira Usurbilgo sailetara piper biltzera. Gehienak ikasleak dira eta **Mikelen** antzeko helburua dute hainbat biltzailek: *"udaran diru apur bat izateko aritzen naiz piper biltzen. Lan gogorra da, ordainsari polita nahi baduzu ordu asko sartu behar dira eta gelditu gabe jo eta ke aritu"*. Aurtengo uztan 40 kilotan du bere marka pertsonala, baina horretarako goiz eta arratsalde etengabe lanean aritu behar izan zuela aitortu zuen. Izan ere bildutako piper kilo bakoitzaren truke 120-125 pezeta ordaintzen dizkiete pipergileek. Beraz, zuek atera kontuak.

Pipergileen haserrea

Piper ekoizleak kexu dira biltzaileek egiten duten lanarekin. **Inaxio Muruaren** arabera, *"orokorrean kaskar samar biltzen da piperra. Badira ondo biltzen dutenak, baina biltzaile*

askoren lana ez da guk nahi genukeen bezain ona. Piperri ertain batean dagoenean bildu behar da, ez haundi eta ez txiki. Baina biltzaileek honi ez diote kasu haundiegirik egiten. Zenbat eta kilo gehiago jaso diru kopuru

Ondo biltzen dutenak badiren arren, orokorrean piper biltzaileen lana eskasa dela uste dute pipergi-

haundiagoa irabazten dutenez piper asko dagoenean landarearen gaineko piperrak bakarrik biltzen dituzte eta piper gutxi dagoenean dagoen guztia". Bestalde, askotan, euri egunetan ez direla joaten dio **Pedro Mari Matxain** piper-gileak, "honek uzta atzeratzea dakar eta piperra haundiegia egiten da, gure kalterako". Behin irailaren amaieratik aurrera piperra biltzeko arazoa izaten dituzte. Biltzaile gehienek klaseak dituztenez biltzailerik gabe gelditzen dira ia.

Sail haundi eta txikiak



Usurbilen 80.000 kilo piper ekoizten dira batzbestek. Usurbilgo baserrietan piperrak duen garrantzia haundia da.

Usurbilen piper-gile ugari dagoenez zenbat piper ekoizten den jakitea ia ezinezkoa da ia. Batzuk sail haundiak dituztenez 20.000-40.000 landare jartzeko ahalmena dute, besteek berriz, 2.000-3.000 landareko pipersailak besterik ez dituzte. Baina zer egiten dute piper guzti horrekin? Zertarako ekoiztu hainbeste piper? Askotan, etxerako behar dena gorde eta Ibarra, Bilbo, Gasteiz edo Nafarroara saltzen

dute biltzen den piperra. Azkenaldian, Donostiako tabernariak ere 2.000-3.000 kilo piper erosten dituzte, ondoren beraiek ontziratuta eta saltzeko.

Kalitateari dagokionez, zer moduzkoa da aurten Usurbilgo piperra? **Joxe Pagolak** argi eta garbi erantzun zion galdera honi: "munduan ez dago honelako piperririk, ez Ibarra ezta Indotxinan ere. San Praskutan piper hau

Agiña piperrak: ekoizle eta ontziratzaileak aldeberean

Orain arte, beste hainbat piper ekoizleren antzera Bilbo, Gasteiz, Nafarroa edo beste leku batzuetan saltzen zituzten beren piperrak egun Usurbilgo Piper Elkarteak osatzen duten sei piper-gileek. Aurten, ordea, aldaketa nabarmena izan da. Usurbilgo piperra beriek ontziratuta eta Agiña piperrak izenpean komertzializatzea erabaki dute.

Beren ekoizpenaren %80a eraman dute elkarteak duen lokalera, bertan ontziratuta ahal izateko. Eskuz egiten dute guztia, artesanalki. Bederatzi emakumezko eta gizonezko batek dute horren ardura. Aurrez finkatutako portzentaiak kontutan hartuta piperrak gatz, ozipina eta klororik gabeko urarekin batera ontziratzen dituzte. Ondoren ekoizleak arduratzen dira etiketak jartzeaz nahiz komertzializazioaz.

Agiña piperra Ibarra piperrengandik guztiz independientea da, ez dute Ibarra piperren zigilupean joan nahi. **Pedro Mari Matxainen** arabera, "inguru honetako piperminak Ibarra gindillen izena hartu du, inguruko piper guztiari Ibarra gindillak deitzen zaio. Hala ere, Ibarra gero eta piper gutxiago dago eta kanpotik ekartzen dute. Nahiz eta hemengo piperra ez izan hemengo balitz bezala saltzen da". Usurbilgo Piper Elkarteak hori salatu du, baina Foru Aldundiak ez du ezer egin nahi.

Momentuz Agiña piperrak euskal labela lortu du. Horretarako bi baldintza nagusi bete behar dira: neurria eta produktua bertakoa izatea. Hori lortu dute eta etengabe hari dira piperra ontziratzen. Salmenten garaia azaroan hasten omen da. Emaitzak orduan ikusiko dira.

Eusko Trenen autobusa eta tren geltokiari eraso diete

Irailaren 7an zenbait kaputxadunek Zarautzik Donostiara zihoan Eusko Trenen autobusa erretzen zuten gaueko 22.30ak aldera. Dirudienez, herriko geltokian gelditu zenean zenbait kaputxadun sartu, bidariariak nahiz gidaria atera eta gasolinaz busti ondoren su eman zioten koktel molotoven bidez. Horren ondorioz, autobusa erabat kiskalita gelditu zen.

Irailaren 13an, aldiz, sutea izan zen Eusko Trenen tren geltokian. Ezezagun batzuek harri batzuekin geltokiko atearen kristala apurtu eta koktel molotov bat botata eragin zuten.



Eskualdeko gose greba presoan alde



Abuztuaren 9tik 16ra bitartean presoan aldeko Eskualdeko gose grebari ekin zioten 21 lagunek Udaregi zaharrean. 87. txanda horretan sei ziren usurbildarrak. Aste honetan zehar irteerak, eztabaidak eta beste hainbat ekintza egin zituzten gosegrebalariek, eta amaieran, esperientzia honen ondorio gisa idazki bat plazaratu zuten. Bertan, presoan dispertsioak "instant honetan" amaitu behar duela adierazten dute. Eta hori lortzeko, hau da, efektibitatea lortzeko, jendearen pasibotasuna hautsi egin behar dela ondorioztatzen dute.

"Baba beltz txikiaren kofradia" sortu da

Pasa den abuztuaren 21ean, Usurbil, Lasarte eta Donostiako 35 bat lagun bildu ziren Andatzpe lagunartean urteroko **baba beltz txikiaren bazkaria** ospatzeko. Bazkari hau duela 14 bat urte egiten hasi ziren, eta aurten "kofradia" bilakatzea erabaki dute. Azken urte hauetan **Felix Sarasola** sukaldaria arduratzen da bazkaria prestatzeaz, eta hori eskertzeko "kofradiako" kideek omenaldia eskeini zioten. Horretarako, baba beltz txikiaren txapela eta kapa oparitu zizkieten, bai eta baba honen jatorri, historia eta propietateak jasotzen zituen diploma bat ere. Kofradia hau ez da ofiziala izango, baina elkarte bezala funtzionatzeko asmoa du.



TXIRIBOGA
TABERNA
pintxoak eta
bokatak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

G A L A R R A
G A R R A I O

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

LUIS GORRITI HIRUGARREN GRADUAN

Lan graizko espetxe-lan dagoen **Luis Gorriti Pagola** preso politikoari hirugarren gradua eman diote. Hemendik aurrera, eguna kanpoan pasako du eta gauzez itzuli beharko du gartzelara.

47 HERRITARREK ODOLA EMAN ZUTEN

Pasa den irailaren 1ean, Usurbilgo Odol Emaileen deia jarraituz **47 herritarrek** odola eman zuten. Hala ere, tentsioa dela eta, batzuk eman gabe geratu ziren.

EUSKARA EPAITEGIAN DEFENDATZEAGATIK EPAITUAK

Irailaren 2an Bergaran EHEko sei kide epaitu zituzten, martxoan gaztelania hutsez egiten ari zen epaiketa bat eten zutelako. Horien artean **Nikolas Bengoetxea** usurbildarra. Iraileko epaiketan argi adierazi zuten ez zutela epaiketa onartzen egin zutena ez dutelako delitu kontsideratzen. Epaiak hitza kendu zienean pankartak zabaldu zituzten eta jarraian atxilotu egin zituzten. Ordubete pasa ondoren berriz ere epaietari ekin zioten, baina lehen-goari eutsi zioten. Azkenean beraiek kanpoan zirela bukatu zen epaiketa eta orain epaiaren zain daude.

Baina horrez gain, epaiketa eteteagatik beste prozesu judizial bat ireki diete. Autoritatearen kontrako desobedientzia larria leporatuko diete eta kode penalean delitutzat hartzen da. EHEko beste kide batzuentzat bezala, hauentzat ere 500.000 pezetako isuna eska dezake fiskalak.

PELOTA TXAPELKETA

Andatzpe eta **Peña Pagolak** antolatzen duten txapelketan, finalerdiak osatzeko falta diren bikoteen izenak aste honetan erabakiko dira. **Izagirre-Kastresana** usurbildar jubenilek finalerdietara pasatzeko aukerak dituzte. **Imanol Matxain**, berriz, juxtu geratu da sartu gabe. Uztailaren 24a ezkeroztik astean hiru egunetan pelota partiduak izan dira. Giro aparta izan da. Finalak urriaren hasieran jokatzeko asmoa dago.



Abuztuaren amaieran **zirkoa iritsi zen** Usurbila. Oiaro kiroldegiaren aparkalekuan jarri zuten kolorezko karpa handia eta egun guztian zehar bertako animaliak (tigreak, llamak, gameluak, zaldiak, ahuntzak...) anbulategiaren aurreko zelaian ikusteko aukera izan genuen guztiok.

Jende ugari bildu zen bertan, haundi nahiz txiki; eta batek baino gehiagok sustoren bat ere izan zuten llamaren txistua zela eta.



Argi: Ekaitz

Zubieta eta Billabonako plazetan "Endika Abril Zoroitzapena" XXXIV. Errebote Txapelketa jokatzeko hasi dira. Irailaren 7ko partiduetan Zubieta I. taldeak 13-11 irabazi zion Zubieta II.ari. Irailaren 14ean, Zubieta I.ak 13-5 irabazi zion Kanboarrak taldeari. Zubieta I taldea honako hauek osatzen dute: **Zaldia I, Zaldia II, Aizpurua I, Segurola** eta **Arregik**. Bigarren taldea, berriz, honako hauek: **Aizpurua II, Amenabar, Bengoetxea, Iparragirre** eta **Gartziak**.

xabier
e-arte-egia

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 36 19 78



Ekaitz

Bideo eta Argazkia

Usurbil tlf 36 14 87 oiartzun



ARRAINDEGIA
PELLO

Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL

i zerdi patsetan

KIROL KOPLA



Iraitz Lizaso

Udara joan eta udazkena datorren neurrian, gure kirolariak denboraldi berrirako prestatzen hasten dira. Aurten ere, eskubalo, saskibalo, futbol... taldeak denboraldi berria prestatzen hasi dira.

Txirrindularitza denboraldia, berriz, bukatzeaz dago dagoeneko. Denboraldiaren balorazioa egiteko garaia da eta zentzu honetan berri onak ditugu. Egin duen denboraldi bikainaren ondorioz, Haimar Zubeldia profesionaletara pasa da. Hau ospatzeko, afari bat egin zen Zendoienean eta bertan "peña" bat sortu zen txirrindulari honi behar duen babesa emateko.

Bestalde, Donostian Munduko Txirrindularitza Txapelketa hasiko da laister batean. Ikusi nahi duenak, ez du asko ibili beharrik izango, Irubidetik igaroko baita froga hau. Bertan, Euskal Herriko zenbait txirrindularik parte hartuko du. Guzti hauek, Espainia edo Frantziako selekzioetan arituko dira, egun Euskal Selekzioa ez baitago onartuta. Hau ikusirik gure selekzioa eskatzeko plataforma sortu da, eta Usurbilgo Txirrindulari Zaleak bertan izango gara. Plataforma honek Donostian zenbait ekitaldi burutuko ditu eta lerro hauetatik parte hartzera animatzen zaituztet.

Ringo: begia non tiroa han

Iñaki Unanue "Ringo" k plater tiraketetako txapelketak irabazten jarraitzen du. Eta ez nolana hiko txapelketak gainera. Iraileko lehen asteburuan "foso universal" sailean, Andorrako La Rabassa Nazioarteko Sari Nagusia eskuratu zuen Usurbildarrak.

Elgoibarren egindako Kemen eskopeta eskuetan hartu eta Europa mailan tiratzaile onenetakoa dela erakutsi zuen "Ringo" k. Bere saioa ikusgarria izan zen: jaurti zizkioten 200 plateretatik 198 jo zituen. Europako tiratzaile onenak bertan izan arren bere marka haustea ez zuten lortu. Honenbestez Iñaki Unanuek son handia duen txapelketa honetan garaipena lortu eta hiru milioko saria eskuratu zuen.

Adituen ustez, marka honekin mundu mailako tiratzaile onenetariko bihurtu da usurbildarra. Entrenamenduetarako leku egokiak eduki ez arren goren mailako marka lortu zuen, 200 plateretatik 198 jotzea ez baita nolana hiko marka. Honekin batera, Andorran Europa mailako tiratzaile onenak atzean utzi zituela kontutan hartu behar da.

Ea ba hemendik aurrera punteria berdinarekin jarraitzen duen. 2000. urtean Sidneyko Olinpiadetan Usurbilgo ordezkari bat egoitea ez litzateke batere txarra izango.

Sailkapena:

- 1º Iñaki Unanue 200etik 198.
- 2º Joel Girard (Frantzia) 200etik 196.
- 3º Rafael Axpe 200etik 196.



Iñaki Unanue "Ringo" da Europa mailan plater tiratzaile onenetarikoa

BARATZA
FRUTADENDA

Aukera zabala zure eskura

Eguzkitza,4 USURBIL
Tlf. 36 49 81

SALTXIPI



Txokoalde, z/g
Usurbil

Tlf. 36 11 27 - 37 10 94

Andatza

karr ozeria

Gumer Sánchez

Osinalde industrialdea
Errota Berri kalea
USURBIL ☎ 36 36 77

Santueneako jaietan auzotarren partehartzea nagusi

Pasa den ostiral arratsaldean eman zitzaizen hasiera Santueneako festei. Asteburuan eguraldia erdi ipurdikoa izan bazen ere, santurik ez duten festa hauetan bertokoen partehartzea urterokoa izan da; haundia.

Festa gehienetan bezala, Santuenean ere festa komisioka arduratzen da jaiak prestatzeaz. **Enrike Uli**, komisioko kideak, honela azaldu digu: "aurten hamar bat lagun aritu gara lanean. Orain arte gu baino gazteagoak arduratzen ziren honetaz, baina nekatu egin direla eta aurten festak ez antolatzea erabaki zuten. Beraz, gure koadrilak hartu du berriro ere testigua; bestela festak bertan behera geratuko ziren".

Hamar bat urte dira (gutxi gora behera) Santueneako jaiak jarraian antolatzen ari direla. Aurretik urte batzuk igaro ziren festak ospatu gabe. Enrikek aipatzen duenez, "Badirudi Santueneako festak aspaldi batean ere ospatzen zirela, Txokoalden antzera. Baina beranduago bi jai hauek kendu eta San Estebanekoak egiten hasi ziren". Baina Santueneako jendea parrandazalea da, eta berriro hasi ziren auzoko festak ospatzen.

Diru iturri berriak

Jai hauek duten aurrekontua ez da haundia. Udalak 250.000



zeta inguru ematen dizkie, eta horretaz gain, etxez etxe eskean joaten dira. Aurten, berriz, "Santueneako jaiak" jartzen duen zapiak egin eta 500 pezetatan jarri dituzte salgai. Beste diru iturri nabarmen bat taberna edo barra izaten da, baina aurten ez genuen ikusiko, ez jartzea erabaki dugu. "Inork ez zuen tabernaren ardurarik hartu nahi, beraz, kentzea erabaki dugu. Horren orde zapiak atera ditugu".

"Uztailean hasi ginen festak antolatzen, eta zailena taldeak kontratatzea izan da. Aurrekontuaren kopuru haundiena ere honek eraman du", aipatzen du Enrikek. Baina berrikuntzak ere egon dira; adibidez, urtero antolatzen den bazkaria afari bihurtu da, "jende gehiagok parte hartu dezan". Eta horrela izan da, 160 lagunek

parte hartu baizuten. Honetaz gain, xexenak kendu eta olinpiadak jokatu dituzte. Larunbat goizean, berriz, merkatu txikia antolatu zuten; etxeko gauzak salerosi edota trukatzeko aukera ezin hobea.

Dudarik gabe, Santueneako festak ez dira arrakastatsuenak, biltzen duten jende kopuruari begiratzen badiogu behintzat. Komisioko kideek behin baino gehiagotan eztabaidatzen dute gai hau: "Guk festak denentzat antolatzen ditugu, baina jendea atortzen ez denez, badirudi festa hauek auzokoentzat bakarrik direla, baina ez da horrela. Gainera, herriko jende gutxi etortzen da, eta etortzen direnak ez dira festetan murgiltzen. Ez dugu ulertzen honen arrazoia. Guk behintzat primeran pasatzen dugu".

Idoia Torregarai

LIZARDI

LIBURUDENDA

Eskolarako materiala

Maila guztietako
testu liburuak

K/ Etxebeste, 1
Tel.: 36 11 15

USURBIL
(Gipuzkoa)



Igandetan ganba-ziri mundialak!

Pintxo eta bokata
goxo-goxoak

Eguzkitza

Abdalahe Mohamed Abdalahe Usurbilen

Zuek hau irakurtzen duzue-nerako bere jaioterrian egongo da Abdalahe Mohamed Abdalahe. Beste 38 hurrekin batera etorri zen uztailean Donostia aldera, eta Usurbilen, Zarautz familiaren etxean, bi hilabete igaro ondoren Saharako bere kanpamendura itzuli zen irailaren hasieran.

Saharara itzultzeko prestaketan harrapatu genuen Abdalahe. Mila Bengoetxea, Miren Zarautz eta amona maleta egiten laguntzen ari ziren. Erropa, jostailuak eta beste hainbat gauza maletan sartu eta bi hilabete hauetan bizitakoaren laburpentxoak egin zigun Saharautar gazteak, beti ere Zarautz familiako en laguntzarekin.

Izan ere Abdalahe berak ez zuen hitz askorik esan. Ni han negoziako agian, egindako galderak labur-labur erantzun zituen. Hala ere, bi hilabete hauetan Saharako Argug herrian jaiotako 12 urteko haur honekin komunikatzeko arazorik ez dutela izan aitortu zigun Milak. "Aurreko urteetan eduki ditugun Saharako haurrak baino eginagoa, ikasiagoa ikusi dut Abdalahe. Ederki moldatau da gure artean. Besteekin hizkuntza zen arazo larriena. Ez zekiten erdaraz eta mimoen bidez nolabait konpontzen ginen. Abdalahekin ez dugu arazorik izan. Erdaraz zerbait hitzegiten zuen eta



elkar ulertzerakoan ez da zailtasunik izan".

Zarautz famiakoak gustora zeuden Saharautarrarekin eta bera ere gustora zegoen. Joan den urtean Sevillako famili batekin egon zen hilabetez eta Usurbilen Andaluzia aldean baino hobeto ibili dela adierazi zigun. Milaren esanetan "Usurbilen egon den bi hilabeteetan ez da aspertu, mugimendu haundiko mutilla izan da. Kalezarren lagun asko egin ditu eta jolastera haruntz joaten zen. Beste batzuetan igerilekura joan eta bertan egoten zen aspertu arte". Azken finean, Usurbilgo haur batek eraman ohi duen bizitza bera egin du Saharako haur honek eta Miren nahiz Imanolen lagunak ezagutzeko aukera ere izan du. Beraietaz galdetutakoan Eider, Mikel Aranburu eta Xeberoren izenak adierazi zizkigun.

Eguerdiko 13.30etan egin behar garrantzitsu bat izaten zuen Abdalahek: telebista ikusi. "Ordu horretan, sofara joan telebista piztu, Antena 3 jarri eta "Equipo A" ikusten du egunero- dio Imanolek -Hau da bere telesailik gogokoena, M-a eta Murdock ikustea. Egunero ikusten duenez, tartean botatzen duten publizitatea ere buruz ikasi du ja".

Usurbilen ondo egon arren bere herrira itzultzeko irrikitan zegoen Abdalahe. Manuel Zarautzen ustez, gustora ibili arren luze egiten zaizkie bi hilabete. "Gu kanpora joaten garenean, beti izaten dugu herri mina, eta hauek ere bai".

Orain Saharan egongo da Abdalahe Mohamed Abdalahe. Hemengo aurrerapenak ahaztu eta hango bizimodu latzari egin beharko dio aurre.

Josu Aranberri

Pintxo etabokata
goxo-goxoak

Eguzkitza



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi industrialdea
Aitezarra kalea, 1
Tel.: 36 10 79 Usurbil

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 37 10 42

Lehiaketa

Oporretan kanpoan ibili ondoren, berriz ere herrian elkartu gara. Udan herri desberdinak bisitatu eta ezagutuko zenituzten seguruenik eta orain argazkiak ikusten eta erakusten arituko zarete.

Guk ez daukagu kanpoko argazkiak jartzeko asmorik lehiaketa honetan, baina bai herrikoak. Ea kanpoko parajeak ezagutu ondoren herriko txokoetat zogorutzen garen orain.

Argazki hau Usurbil ateratakoa da, bai.

Baina zein leku da?

Non dago balkoi hau?


Erantzuna baldin badakizu, animatu eta utz ezaiguzu gure buzoian, Kale Nagusiko 37an. **Patri** jatetxeko afari eder bat zozketatuko dugu bi lagunentzako. Animo eta zorte on!



Gogoratzen al zarete zer proposatu genizuen oporren aurretik? Zuen opor lekutik postaltxo bat bidaltzeko eskatu genizuen eta batzuk behintzat alferkeriari aurre egin eta boligrafoa hartu duzue. Ilusio ederra egin digu leku desberdinetatik jasotako postal sortak!

Eskerrak ematearekin batera zuen esfortzua saritu nahi dugu eta ohi bezala bi pertsonentzako afaria zozketatu. Eta... zortea izan duen postal... **Mikel Bengoetxeak** Zarauztik bidali diguna izan da. Zorionak Mikel eta on dagizula **Antxeta** jatetxeko afariak!

Komikia



Juanjo

ALDAP

MIROZAK - OPAZAK

ATYEGA-ALDE 10. Tlf: 36-85-42

FESTA ZORIONTSUAK PASA!

LABE-TXIKI

Kale Nagusia, 2
Tlf 37 33 48
37 09 13
USURBIL

SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

LOSU

Ugaldea poligonoa 36 - 2^a Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETA
IRA GARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

IRAILAK 19 ostirala

- **Zumarte musika eskolan matrikulatzeko azken eguna** dugu gaur. Ordutegia arratsaldeko **17.00**etatik **20.00**tara izango da kultur etxean. Informazio gehiago 37 15 94 telefonoan.
- **Gure Pakea Zahar egoitzak Tarazonara** (Araba eta Aragoiko mugan) antolatu du **bidai**a datorren urriaren 11rako. **Izena emateko epea gaur amaitzen da.** Deitu 37 32 28.

IRAILAK 20 larunbata

- **Aitzaga elkarteak antolatuta,** gaur **Usurbilgo sagardogileen arteko III. lehiaketa** izango dugu. Bertan, Olano, Arratzain, Gorosti, Aialdena eta Berritzako sagardoa izango dugu dastagai.

IRAILAK 21 igandea

- **Andatza Elkartek irteera** antolatu du: **Anboto** (1331 m.)- **Orisol** (1128 m.). Irteera goizeko 7.00etan frontoi atzean.
- **Zubietan Euskal Festa** (Ikus Kalejirako kronika).

IRAILAK 22 astelehena

- **Presoak Euskal Herrira!**eko konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko 20.00etan.

IRAILAK 26 ostirala

- **Senideaken manifestazioa.** Arratsaldeko 20.00etan.

IRAILAK 28 igandea

- **Andatza Elkartek Eniora irte-**

Etumeta AEK euskaltegiak matrikula ireki du ikasturte berri honetarako izena eman nahi duen edonorentzako. Ikasturtea urrian hasi eta ekainean amaituko da eta maila guztiak egongo dira: Euskalduntzea, Alfabetatzea, Hika eta EGA. **Matrikulatzeko epea irailan amaitzen da.** Goizez **11.00**etatik **13.00**etara, eta arratsaldez **17.00**etatik **19.00**etara. Informazio gehiago 37 20 01 telefonoan.



era antolatu du. Irteera goizeko 7.30etan frontoi atzean.

IRAILAK 29 astelehena

- **Presoak Euskal Herrira!**eko konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko 20.00etan.

OHARRAK

- ✓ **Helduentzako Heziketan** parte hartu nahi baldin baduzu, matrikulatzeko orduak hauek dira: **astelehen** eta **asteazkenetan** goizeko **10.00**etatik **12.00**etara eta **astearte** eta **ostegunetan** arratsaldeko **17.00**etatik **19.00**etara **Agerialde** ikastetxean.
- ✓ **Katekesiari, urriaren 6tik 10era** doan astean emango zaio hasiera. **Izena emateko epea,** berriz, **irailaren 30 eta urriaren 1a** izango da parroki etxean. Goizetan **10.00**etatik **11.30**etara. Arratsaldetan **16.30**etatik **18.30**etara.
- ✓ **Lanbide Hastapenerako tailerretako matrikula** irekia dago

irailaren 22 arte. Gozogintza, ileapaindegia eta edergintza, automobilaren mekanika, igeltsaritza, mintegiak eta lorategiak. **16 eta 19 urte bitarteko gazteentzat** edo eta **langabezian daudenentzako** ikastarolak. Urriaren 1ean hasten dira klaseak. Informazio gehiago Udalean. Galdetu monitore soziolaboralarengatik.

- ✓ **1955. urtean jaiotako usurbildarrei jakinarazten zaie:** datorren **urriaren 11**ean, larunbata, gaueko 21.00etan afari bat egingo dela Arratzaingo sagardotegian. Informazio gehiago nahi baduzu, deitu Maribi Arrospideri: 36 58 35 edo Josune Aranbururi: 37 26 46. **Komeni da izena aurrez ematea.**
- ✓ **Zumetaren erakusketa** ikusgai dago **irailaren 24** arte Ordiziako Barrena Kultur etxean.
- ✓ **Urrian tailerra irekiko** da Etxe Aldian. Bertan, zur tailaketa, marrazkia eta pintura, errestaurazioa eta esku lanak lan-

MAHUKA



GAZTE DENDA
Modako arrop
neguaren atari

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06



URTINEA
LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 22 55

duko dira. Deitu **36 47 83**. Pelex edo Susana.

- ✓ **DYAk sosrosle ikastaroa** antolatuta du urriaren Tetik 31 bitartean. Izena emateko ordutegia **19.00**etatik **21.00**etara DYako postuan. Informazio gehiago 46 46 22.
- ✓ **Ingeleseko klaseak**. Maila guztiak eta talde txikietan. Deitu 36 29 11.
- ✓ **Pisu bat alokatzen** da Bilboko alde zaharrean. Unibertsitateko autobusetik

gertu dago. 37 31 17 Uxo.

- ✓ **Pisua saltzen** da Santuenean. Deitu 36 04 46.
- ✓ **Etxebizitza salgai**. Sukaldea, sala, hiru gela eta bainugela eta komona. Ganbara, gara-jea eta garajerako traste-gela txikia. 37 02 75 telefonoa.
- ✓ **Flauta trabesera** bat erosiko nuke. 36 13 12 telefonora deitu iluntzetan.

tza zerbitzuan aritzeko langile bat behar da. Izena emateko epea **irailaren 19**an amaitzen da. Informazio gehiago udal-etxean.

- ✉ **"Euskal Txokoetako" begiraleak kontratatzeko** deialdia. Transmisiorik gabeko eskolau-meei euskararen ezagutza eta erabilpena sustatu eta indartzeko begiraleak behar dira. 18 urte betetetakoa izan behar da eta Usurbilen erroldatuta egon. Informazio gehiago udal-etxean. Izena emateko epea **urriaren 1arte**.

LANPOSTUAK

- ✉ **Usurbilen etxez-etxeko lagun-**

Kiror agenda

IRAILAK 19 ostirala

- **Pelota partidua** jubenil mailan: **Belauntzarán- Altuna vs. Baez II-Goikoetxea**. Gaueko 22.00etatik aurrera.
- Afizionatu mailan: **Mikelperizena-Zilbeti vs. Castellanos- Etxeberria**.

IRAILAK 20 larunbata

- **Pelota partidua** jubenil mailan: **Iparragirre- Gartzia vs. Izagirre-Kastresana**. Gaueko 22.00etatik aurrera.
- **Pelotako klubén arteko liga junior** mailan: **Arrasate- Andatzpe Paña Pagola**.

IRAILAK 21 igandea

- **"Endika Abril Oroitzapena" Errebote Txapelketa**: **Kanboarrak- Zaharrer Segi** goizeko 9.30etan eta **Avr. Bayonnais I- Zubieta P.E. I.** goizeko 11.30etan. Zubietako plazan.
- Futbol errejional maila: Usurbil-Gwendolyne.

- **Futbola kadete maila**: **Tolosa-Usurbil**.

- **Futbola jubenilak**: **Elgoibar-Usurbil**.

IRAILAK 26 ostirala

- **Pelotako erdi finalak** jubenil mailan: **Etxaniz- Elola vs. Belauntzarán-Altuna** edo **Irazoki- Retegi**. Gaueko 22.00etatik aurrera.
- Afizionatu mailan **erdi finalak**: **Garate- Txikito vs. Esnal- Zabala**.

IRAILAK 27 larunbata

- **Pelotako erdi finalak** jubenil mailan: **Laskurain- Bengoetxea vs. Izagirre- Kastresana** edo **Martin-Ruiz**. Gaueko 22.00etatik aurrera.
- Afizionatu mailan: **Bizente- Gastesi vs. Castellanos- Etxeberria**.

IRAILAK 28 igandea

- **"Endika Abril Oroitzapena" Errebote Txapelketaren** barnean: **Behar Zana 2- Noizbait** goizeko 9.30etan eta **Kanboarrak- Zubieta P.E. II**.

goizeko 11.30etan. Zubietako plazan.

- **Futbola neskak**: **Usurbil- Arrasate**.
- **Futbola jubenilak**: **Mondragon-Usurbil**.
- **Futbola kadeteak**: **Usurbil- Texas Lasartearra**.
- **Futbola erregionalak**: **Groseko-Usurbil**.

OHARRAK

- ✓ **Gimnasia erritmikoan** izena eman daiteke astearte eta ostegunetan, Oiaro kiroldegian.
- ✓ **Aitzaga Elkarteak** beste urte batez **Eskuz binaka lau térdian pilota txapelketa** antolatuta du. Izena eman nahi duenak hil honetan egin beharko du.
- ✓ **Oiaro Kiroldegian Judo eta Sanbon** izen emateko epea irekia dago irailean, eta hil honen barnean izena ematen dutenei judoko trajea oparituko zaie.



BAZKIDE TXARTTEA

5.000 PEZETARA URTE OSORAKO

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrantea (20 digito): _____



passport

INGELESA ETA FRANTSESA

Uistin 11- 1.B
LASARTE-ORIA
Tel. 36 28 73



4.700 pezeta orduko

Lasartera joateko garraio zerbitzua dohainik



- ✓ Talde txikiak: gehienez 8 ikasle
- ✓ Eskolarako talde bereziak: UBI, BBB, selektibitatea
- ✓ PET, First Certificate eta Proficiency azterketetarako prestaketak
- ✓ Galdutako orduak beste ordu batean dohainik errekuperatzeko aukera

EUSKARA GALDUZ GERO, AKABO EUSKAL HERRIA

Matrikula zaitez Etumeta
euskaltegian!!

Bazkide, **N**oaua!!